

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2025eko uztailak 11 · 1362 zenbakia

UDA FRESKATZEKO URA LAGUN

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI


ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti
babestuta egongo
den **garantia**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontozian, Implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikian Diplomatua,
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikian Diplomatua,
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza,
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa,
Anibal Alonso Doktorea.

Abuztuan ere ZABALIK

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**




IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus



@etakitto



Egun beroetan eibartar askok kanpoko igerilekuetan aurkitzen dute oasia. Ekainean zabaldu zituzten atea eta dagoeneko eduki ditugu egun eguzkitsu eta beroak, mugimendu askokoak. Bertan izan gara atezainaren, sorosleen, erabiltzaileen eta tabernarien berbak jasotzen.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenwean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarriarik onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratuz diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bwidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuarte), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Zarauzko lagunekin independizatzearaz hitz egiten dugunean inork ez du planteatu ere egiten Zarautzen geratzea; ez da prezioagatik bakarrik, baina bada horregatik ere. Bigarren etxebizitza erostera edo pisu turistikoa jartzera doazenek kenduko dizkigute lehen etxebizitzak bertakoei. Lana eta dirua omen dakartzate europar zuri espontaneo rubio udatiarrek. Kuriosoa da, lana ematen dizun turismo berberak kentzen dizu etxea, eta garaipen bat ospatu behar duzu, lana ona delako eta etxea txarra. Ez dugu zuen dirua nahi, gure etxeak nahi ditugu.

ANER EUZKITZE, bertsolaria

Feministek dioten bezala, ezinezkoa da emakumezkoen artean hitz egiten dugunean gehienok biolentzia sexuala jaso dugula egiaztatzen dugun bitartean, gizonezkoek euren artean hitz egiten dutenean uste izatea eurek ez dutela inoiz halakorik egin. Hor arazo bat dago; hasteko, arazo matematikoa. Patriarkatuari eta maskulinitateari errua botatzeak ez du zentzurik. Gizarte kapitalistak ere gero eta gauza gehiago desiatzera eramaten gaitu; baina, hori horrela izanda, lapurrei ez diegu kentzen lapurretara egin izanaren ardura.

MANON GARCIA, filosofo frantziarra

Datorren asteko alea, ikasturteko azkena

Datorren barixakuan, hilaren 18an, kaleratuko dugun alea ikasturteko azkena izango da. Hurrengo barixakua, uztailak 25, jai eguna da. Beraz, kontuan izan edozein informazio kaleratu edo berriren bat argitaratzeko asmoa baduzue, hala nola, zorion-tarteak, iragarki laburrak...

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PILLIA EGIN→ Dirua aurreratu. “Ez eban beste amesik, diru pillia egin eta kontatzia baiño”.

PILLATU→ Zeozer apartekoa aurkitzean esaten ziren berbak, poztasuna adierazteko. Umeez erabiltzen zituzten. “Pillo, pillu, sangarra pillu, masusta hónek!”.

1934

Amañako igerileku zaharra

Sasoi hartako eibartarrak errekan bainatzen ziren, eta haurrak bertan aritzen ziren jolasean. Eibarren sei edo zazpi igerileku natural egon ziren (berez presa edo kunboak ziren). Amañakoa da ezagunetakoa, baina Ariatzakoan igerian ere egiten zuten.

INDALECIO OJANGUREN FUNTSA



Farmaziak

- BARIXAKUA 11**
- EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ZAPATUA 12**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberría, 7)
- DOMEKA 13**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberría, 7)
- ASTELEHENA 14**
- EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
- MARTITZENA 15**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberría, 7)
- EGUAZTENA 16**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarría, 4)
- EGUENA 17**
- EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
- BARIXAKUA 18**
- EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Gregorio Hoyo Salviejo.**
84 urte. 2025-07-05.
- **Serapia Iriondo Lezeta.**
97 urte. 2025-07-05.
- **Maria Jesus Agirre Unzeta.**
80 urte. 2025-07-08.
- **Joaquina Soares Rosa.**
65 urte. 2025-07-08.



Udalaren zerbitzu eta sailetan udako ordutegiari jarraituko diote, irailera arte

Uztailaren 1az geroztik udako ordutegia dago indarrean Udaleko sail eta zerbitzuetan. Horrela, udaletxean dauden udal sailak 08:30etik 13:30era zabalduko dituzte (uztailan, abuztuan eta irailean), astelehenetik barixakura bitartean, jai-egun berezietan (uztailak 25 eta 31, abuztuak 15 eta irailak 8) izan ezik. Pegora Herritarren Zerbitzurako Bulegoaren ordutegia ere hori izango da, eta telefono bidezko arreta 08:00etatik 14:00etara bitartean emango dute.

Portalea Kultur Etxea, berriz, 09:00etatik 20:30era zabalduko

dute uztailean, astelehenetik barixakura (asteburu eta jai-egunetan itxita egongo da); eta Juan San Martin Liburutegia 09:00etatik 13:30era eta 16:30etik 19:30era bitartean

Bestalde, Armagintzaren Museoak 16:00etatik 20:00etara zabalduko ditu ateak, martitzenetik barixakura (astelehen, asteburu eta jai-egunetan itxita egongo da).

Andretxea bakarrik goizez zabalduko dute uztailean, 09:00etatik 13:00etara. Gainontzeko sail eta zerbitzuen ordutegiak udalaren webgunean kontsultatu daitezke (www.eibar.eus).

Eibar etxebizitza-merkatuko eremu tentsionatua izendatzeko lanean hasiko da Udala

Eibarko Udalak jaso duen Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren txostenak dioenez, udalerriko 01 barrutiak (Urki, erdialdea, Ego-Gain eta Otaola) etxebizitza-merkatuko eremu tentsionatu izendatzeko legeko irizpideak betetzen ditu, Etxebizitzarako Eskubidearen maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak ezarritakoaren arabera. Azterlanean jaso dutenez, eremu honetan etxebizitza erosteko edo alokatzeko prezioak ehuneko hiru puntu baino gehiago egin du gora azken bost urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) kontsumo-prezioen indizearen ginetik. Gauzak horrela, legearen 18.3 artikuluan jasotako funtsezko irizpideetako bat bete da. Udaletik argitu dutenez, kalifikazio horrek bide emango luke etxebizitzaren prezioa kontrolatzeko, maizterrak babesteko, eta herriko biztanleen etxebizitzarako sarbidea hobetzea. Jon Iraola alkateak positiboki baloratu ditu txostenaren emaitzak: “Etxebizitza eibartarren kezka nagusienetako bat da eta, beraz, alkatearena eta gobernu-taldea-rena ere bada. Diagnostiko honekin erabakiak hartu eta neurriak bultzatu ahalko dira, 01 Barrutiko bizilagunak babesteko”.



Udalak hainbat lanpostu betetzeko lan-eskaintza eman du argitara

Eibarko Udalak hainbat lanpostu betetzeko lan-eskaintza argitaratu du, eta uztailaren 28an amaituko da hautaketa-prozesuan parte hartzeko izen-ematea. Zehazki, kirol instalazioetako bi atezain plaza eta eskola publikoko hiru atezain plaza dira, eta horietara aurkezteko zer

egin behar den ikusteko www.eibar.eus helbidera, “Tramiteak eta zerbitzuak” azpiatalera sartu behar da. Bestetik, kontu-hartzailetzako administrari bat hautatzeko oposizio-fasearen lehen ariketaren behin-behineko emaitzak argitaratu dituzte.



Astelehenetik aurrera Orbea kiroldegia itxita egongo da, mantentze-lanak egiteko

Mantentze-lan berriak egiteko, Orbea kiroldegia aldi baterako itxiko dute datorren astelehenetik (uztailak 14) abuztuaren 1era arte (egun horretan berriz zabalduko da). Udaletik adierazi dutenez, “itxita dagoen bitartean, beharrezkoak diren lanak eta hobekuntzak egingo dira emakumeen aldageletan, igerilekuan eta beste toki batzuetan. Besteak beste, igerilekuko sabaia ordeztuko da, Urbat klubeko en-trenamendu-saioetarako euste-sare bat jarriko da, emakumeen aldagelako hezetasunak konponduko dira, gimnasioan zoru teknikoa jarriko da eta makinak lekuz aldatuko dira,

eta gimnasiaorako sarbide-gunea margotu egongo da”.

Andoni Ameztoty Kirol Saileko zinegotziak esan duenez, hobekuntza horiek Udal kirol-instalazioak modernizatzeko estrategia global baten parte dira: “Emakumeen aldagelako jarduketa lehentasunezkoa zen, eta datozen hilabeteetan ere hobekuntzak egiten jarraituko dugu”. Udalak eskerrak eman nahi dizkie erabiltzaileei, “sor daitezkeen trabak ulertzeagatik”. Orbea itxita dagoen bitartean, alternatiba gisa beste kirol-espazio batzuk erabilgarri egongo direla jakinarazi du Udalak.

Eibarko langabetu kopuruak behera egin du ekaineko datuen arabera

Enpleguari buruzko azken datuen arabera, ekainean ere langabeziak behera egin du Eibarren: aurreko hilean 1.467 langabetu zeuden gure herrian, maiatzean baino 33 gutxiago, eta langabezia-tasa %11,97koa zen. Ekaineko datuen arabera, 1.467 lagun daude langabezian Eibarren. Horrela, langabeziak behera egin du herrian (maiatzeko datuen arabera 1.500 lagun zeuden langabezian eta langabezia-tasa % 11,97koa zen). Eskualdeko herri guztietako datuei begira, ekainean 2.482 langabetu zeuden Debabarrenean (langabezia-tasa %9,59koa izan da). Gainontzeko herrietako datuak hauek dira: Elgoibarren, 445 langabetu; Mendaron, 74; Deban, 135; Mutrikun, 164; eta 197 Soraluzen.



Bide berria zabaldu dutela eta, Errekatxu inguruko trafikoa aldatu da

Zabaldu dute Errekatxuko bide berria, eta horrek hainbat aldaketa eragin ditu trafikoan. Horrela, Bista Ederreko trafikoa Eibarko Txikito kalerantz doa orain, Miguel de Aginagatik eta Eulogio Garatetik igarota, amaieran Errekatxu-Arane bidean sartzeko.





Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa domekero zabaltzen dute, 11:30etik 13:30era.



Gerra Zibileko frontea bertatik bertara ezagutzeko bisita gidatuak

Apirilaz geroztik gerra-fronteko bisita gidatuak egiten ari dira, eta hirugarren bisita domeka honetan izango da: 11:00etan hasiko da, Arrateko Interpretazio Zentrotik abiatuta, eta 14:00ak arte iraungo du. Antolatzaileen berbetan, “mendi-ibilbide bat da, eta bisitariak aukera izango du gerratearen momentu garrantzitsuenak gertatu ziren toki horietan egoteko”.

Urtebetez itxita egon ondoren, Arrateko Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa berriz zabaldu zuten apirilean, eta horrekin lotuta hasi dira bisita gidatuak eskaintzen: urtea amaitu arte hilean behin egingo da bisita, egutegi honi jarraituta: irailak 14 (gaztelaraz), urriak 5 (euskaraz), azaroak 2 (gaztelaraz) eta abenduak 14 (euskaraz). Argitu dutenez, horrelako bisita egiteko derrigorrezkoa da aurretik izena ematea, Udalaren

webgunean eskuragarri dagoen formularioa beteta. Zentroa, berri, domekero egongo da zabalik, 11:30etik 13:30era.

Udaletik azaldu dutenez, “Jesus Gutierrez historialariaren eta Jose Luis Valenciaga eibartarraren laguntzari eta aholkularitzari esker jarri zen martxan proiektu hau. Trintxera baten itxura duen gela batean, Arrateko zelaia eta Eibarko herriak ezagutu zuten izua eta ikara erakusten da. Bertan

Badihardugu elkarteak egindako ikus-entzunezko bat, Eibarren izandako gerratearen maketa, bost panel eta erakusleihoetan hainbat material daude (uniformeak, karnetak, gerratean erabilitako material simulatuak...), baita kartelak, banderak eta lau erreproduzio ere. Gerra-frontean gertatutakoa erakustea da helburu nagusia”.

Gerra-fronteari buruzko informazioa eta hiru ibilbide biltzen dituen web orria

Aipatutakoaz gain, gerra-fronteari eskainitako webgune bat ere bada-go (www.gerrazibilaeibarren.eus), Arrateko Interpretazio Zentroa inauguratu zutenean osagarri gisa ipini zituzten paneletan jasota zegoen informazio guztiarekin. Izan ere, panel horietako asko hondatuta daude gaur egun. Aipatutako webgunean hiru ibilbide ageri dira, eta horietako bakoitzean gure herriko gertaera garrantzitsuenak jaso dituzte, “betiere, Gerra Zibilaren aurrekari, gertakari eta ondorioak nabarmenduta”.



Uztailean eta abuztuan zehar ez dute Agurtzen zerbitzua eskainiko

Agurtzen zerbitzuaren bitartez aurretiazko borondatearen inguruko informazioa ematen zaie eibartarrei, zalantzak argituz eta beharrezkoa den dokumentazioa betetzen lagunduz. Hileko lehen eta hirugarren eguaztenetan Untzaga Gizarte Etxeko Arrate aretoan egon ohi dira, baina orain, udaren etorrerarekin, jarduera eten egin dute. Uztailean eta abuztuan jai hartuko dute, eta irailaren 17an itzuliko dira, betiko martxan zerbitzua eskaintzeko.



Irailerako ikastaroen eskaintza zabala antolatu du Eibarko KZguneak

Eibarko KZguneak prest dauka irailerako planifikazioen eskaintza, eta ikastaroetan izena eman nahi dutenek aukera ezberdinak dituztela gogorarazi dute: Portalea eraikinean dagoen KZgunera joan daiteke, 943 023 637 telefono zenbakira deitu, edo Interneten zuzenean izena eman daiteke (www.kzgunea.eus). Informazio gehiagorako, ikastaroen katalogoa kontsultatu daiteke aiputako web orrian.

M^a Jesus Agirre zinegotzi-ohia hil egin da

Eibarko Udalean, 2015etik 2019ra arteko legegintzaldian Udalbatza-kide izan zen M^a Jesus Agirre Unzeta martitzenean hil zen, 80 urterekin. EQUO-Berdeak taldeko ordezkari gisa 2016an hartu zuen zinegotzi kargua, Irabazi-Ganemos Eibar taldeak zuen ordezkari bakarrak, Itoitz Garcia-Antonek, martxoan kargua laga zuenean. Nafarroako Unibertsitatean Filo-

sofia eta Letrak ikasi zituen, eta 1970ean lizentziatu zenetik irakaskuntzan aritu zen lanean, 2012. urtera arte. Eibarko eta Nafarroako hainbat ikastetxetan eman zituen klaseak, eta atzerrian (Kongo Belgikarrean eta AEB-n) ere aritu zen. Musikan Lizentziatua (pianoa) ere bazen, eta 2013an Eibarko Kantuzaleak taldea ipini zuen martxan. Goian bego.



Gure Zirkuko lantaldearen esker ona

Ekainaren 20tik uztailaren 5era bitartean Arrateko zelaian egon ondoren, Gure Zirkuko lantaldeak eskerrak eman nahi dizkie bertara hurbildu diren guztiei: “Eskerrik asko bihotzez paraje eder honetara igo eta gurekin zirkuez gozatzeko aukera egin duzuen guztioi! Eta bereziki eskerrak hain ongi zain-

du gaituzten Tiro Pitxon jatetxeko eta Arrate Irratiko lagunei! Biba zuek!!”, diote. Gurean izandako arrakasta eta gero, uda honetan ez dute atsedetik hartuko: Lekeition 14 emanaldi eskainiko dituzte, gaurtik uztailaren 26ra bitartean. Eta Orion beste horrenbeste egingo dituzte, abuztuaren 1etik 23ra.



MIKEL ARRILLAGA

Iparra Arraten

Hamaika mendi buelta egin nituen Deporrarekin gazteagoa nintzenean. Mapa ematen ziguten testu eta guzti; halere, sarri ibiltzen ginen galduta bueltaka, buztana galdutako sugandilaren antzera:

- Ez dut uste hemendik denik, aurreko bidegurutzean gorantza hartu behar genuen.- Seguru zaude? Zer jartzen du paperak? Ea... “dejar las marcas blancas y rojas y coger las blancas y rojas. -Ados, berriro leporaino igoko gara, ea handik den... Gaur egun pentsaezina da hori gertatzea; ibiltari adina trackmankulu agertuko da zalantzarik txikienean, zein baino zein zehatzagoa. Orain bidean ez gara galduko, baina garbi daukat iparra galdu dugula: mendira joatearen esentzia eta xarma, alegia.

Poliki-poliki gertatzen da: Aspaldi hasi ginen benetako esnea utzi eta kartoizko kutxetan datorren likido txuri eskas hori edaten. Orain, sarri ikusiko dugu geure burua alkoholik gabeko garagardo moduko hori edaten, edo okerragoa: Coca Cola Zero. Azukrerik ez dauka. Zer daukan? Auskalo! Akabatu berdin akabatuko gaitu, baina, hori bai, kaloriarik gabe, argal. Hurrengo fase batean supermerkatuan sartuko gara, eta zer erosiko dugu? Aurrez egindako patata-tortilla. Gainera, jan eta hurrengo egunean nori eta amari esango diogu: ama, ez dakizu zein goxoa zegoen Mercadonako patata-tortilla. Akabo, iparra, ama, akabo dena. Gero alferrik da esatea: Baina, ama, zurea askoz goxoagoa e!!!

Ekainaren 27an, Arraten egon ondoren pentsatu dut honetan guztian. Deitu iparra, deitu esentzia, deitu benetakotasuna, deitu oinarria, bi hitzetan, deitu Gure Zirkua. Zirrara, miresmena, poza, ilusioa, oilo ipurdia, zerbaiten parte sentitzea... Zenbat bizipen zoragarri ordu eta hiru laurdenean... Bene-benetako ikuskizuna, geure-geurea. Mila esker, bihotzez. Jarraitu iparra non dagoen gogora ekartzen, eta arriskuak arrisku ez sekula zeuena galdu. Sharivari, Sharivari...

“Deitu iparra, deitu esentzia, deitu benetakotasuna, deitu oinarria, bi hitzetan, deitu Gure Zirkua”

Badatoz 10 Kia Egunak. Zatoz eta eska iezaguzu deskontu estra.

Uztailaren 10etik 21era



Movement that inspires

Zure Kia

15.500 €*

Finantzatzuz

Zorioneko zaude, iritsi da zure Carpe Diem momentua. Beti egin nahi izan duzun hori egiteko momentua: Kia kontzesionario batera joan eta merezi duzun deskontu estra eskatu. Zergatik? 10 Kia Egunak direlako eta Kia bat 15.500€-tik aurrera finantzatzuz eskaintzea ez delako gure azkeneko eskaintza.

NAIA CAR

📍 **Apalategi, 1 EIBAR**

☎ **943 70 70 33**

gruponaiacar.com

WLTP CO₂ isuri konbinatuak (g/km): 100-159. WLTP kontsumo konbinatua (l/100km): 4,4-7. *PPG Kia Picanto 1.0 DPI Concept (zergak, garraioa eta sustapen-ekintzak barne). Ez dira sartzen gestoriako eta matrikulazioko gastuak. Eskaintza hau Blanco Cetelem SAUrekin Flexiplan karpainaren bidez finantzatzen duten bizero partikularrei aplikatuko zaie. Finantzatu beharreko gutxienezko zerbatekoa 7.000 €-tik gorakoa izango da, edo finantzaketa-kontratua amaitzean bigailuak etorkizunean izango duen balio berrmatua baino handiagoa, eta gutxienez 36 hilabeteko epean eta gutxienez 36 hilabeteko iraupenarekin. Eskaintza hau ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin, eta 2025/07/21era arte balio du. Kontsultatu baldintzak hemen: www.kia.es.



Beroaren aurrean, igerileku freskoa

BIDEOA



Hilabete ere ez dugu egin udan, baina bero handiko hainbat egun pasa ditugu dagoeneko. Eguzkiak ondo jo du Eibarren eta bakoitzak ahal duena egiten du egoera horri aurre egiteko: itzaletan egon, etxean haizagailuaren alboan, mendira doaz batzuk, hondartzara beste hainbat, eta eibartar askok herrian dugun oasi urdinera jotzen dute, kanpoko igerilekuetara.

Eguazten goiza da, 11:00 inguruan. Hodeirik gabe hasi dugu eguna eta iragarpenak dio eguzkia gailenduko dela zeruan, eta temperaturek ere gora egingo dute. Gauzak horrela, goizean goizetik eibartar askok kanpoko igerilekuetarako bidea hartu dute eta, goiz izanik ere, lagun asko elkartu dira dagoeneko hango zelaian.

Mugimendu asko dago atean, udalekuetan dabiltzan umeak gogotsu sartu dira, badaude beste talde batzuk ere, ohiko erabiltzaileak, denboraldi honetan lehen aldiz Ipuruara doazenak, txartela berritzeko zer egin behar den galdezka dabiltzanak... Susana Gonzalez atezainarekin berba egin nahi dugu, baina ez du etenik bere jardunean. "Eguraldiak asko baldintzatzen du hemengo jarduna. Gaur, zerua urdin-urdin dago eta jendea dabil goizean goizetik", diosku tarte bat hartu duenean.

Ezin da deskuidatu, ondo baitaki jendeak moduak bilatzen dituela ordaindu barik igerilekuan sartzeko.



“Normalean mundu guztia batera etortzen da eta umeak batzuetan ez dira ondo portatzen. Batzuetan tranpak egiten saiatzen dira txartelekin. Batzuek gurasoen txartelak erabiltzen dituzte eta kendu egin behar izaten dizkiegu”, ohartarazi digu. Horrelako kontuez gain, erabiltzaileak ondo portatzen direla diosku. “Hori bai, jendea gogo askorekin etortzen da bero egiten duenean, grinatsu”, bere berbetan.

Goizetan, normalean, jende nagusia joaten dela dio atezainak, eta arratsaldean familiak eta gazte gehiago elkartzen direla bertan. “Gero, asteburuetan beste jende mota bat etortzen da”, bere berbetan. Bestalde, hilabetetik hilabetera ere aldea egoten da. “Ekaina demasa izaten da. Jendetza etortzen da eta batzuek oraindik ez dute abonua edukitzen, uztailean hasten delako urte erdiko abonua, eta sarreran nahasketak sortzen dira. Gero lasaitu egiten da egoera, uztailean ere jende asko etortzen den arren”.

Ordena pixka bat, ondo pasatzeko

Beroa kentzeaz gain, ondo pasatzeko tokia ere bada igerilekua, eta hori horrela izaten saiatzen da Ekain Muñoz soroslea: “Orain artekoan ezbehar txikiren bat gertatu da (mozketak, urratuak...), baina bestela ez da arazo larririk egon denboraldi honetan. Jendeak ondo errespetatzen ditu arauak eta gure esanak, eta sorosleek nahi izaten duguna da ordenari eustea eta, jende asko dagoenez, adi egotea. Jendea ondo pasatzera dator, emozio handiz, eta gauzak ondo joatea da gure ardura”.



Kanpoko igerilekuko tabernan eskaintza zabala dute. EKHI BELAR

>>> Azken asteotan hainbat egun eguzkitsu eta bero izan ditugu, eta eibartar askok igerilekuetara jotzen dute freskatzera

Goizak lasaiagoak izaten dira eurentzat ere. “Udalekuetako umeak etortzen dira eta monitoreek kontrolpean edukitzen dituzte”, bere berbetan, “baina arratsaldean nagusiagoak etortzen dira, bakarrik edo kuadrillan, eta nahasmen handiagoa egoten da. Dena dela, orokorrean ondo portatzen dira”. Gauzak horrela, goizetan sorosle bat egon ohi da eta arratsaldean bi, “abuztuaren erdialdean izan ezik”. Ulertzekoa da, sasoi horretan jende gutxiago egoten delako igerilekuetan.



Zera urdin-urdin esnatzen den egunetan goizetik egoten da jendea kanpoko igerilekuetan. EKHIBELAR

Toki ona beti

Iker Argente ume talde baten ardurar du igerilekuan, Astixako begiralea delako. Uretatik irten eta berba batzuk eskaini dizkigu, igerilekuan egoteaz gozatzen ari diren umeez inguratuta. “Igerilekuan oso ondo gabilta”, diosku. “Astixako udalekuetan batzuetan Eibartik gauzak egitea tokatzen zaigu eta igerilekua beti izaten da toki ona”.

Oso gustura ibili arren, hobetzeko gauzak daudela uste du Argentek. “Beste herri batzuetako igerilekuekin alderatuz, Elgoibarkoekin adibidez, egia da espazio aldetik ez dagoela askorik Eibarren, Elgoibarren ur-txorrotak ere badaude...”, bere iritziz. Dena dela, espazio txikia egon arren, oso ondo pasatzen dutela diosku, “dena dugulako gertu”. Gainera, begiraleak bikain ikusten du igerilekuan kafetegia egotea. “Aurten jende berriak hartu du eta oso ondo dago”, bere berbetan.

Beste erabiltzaile batek bestelako hobekuntza batzuk proposatu

>>> Goizetan eta asteburuetan giro lasaia egoten da, baina arratsaldeetan lagun gehiago elkartzen da

>>> Kanpoko igerilekuak irailaren 30era arte egongo dira zabalik eta urte erdiko abonua egin daiteke

dizkigu: “Igerileku inguruko lurra aldatuko nuke, bustitzen denean oso labainkorra delako. Eta zelaia ere hobetu beharko lukete, ia ez baitago belarrik”.

Tabernari berriak

Mondragon Unibertsitateko LEINN karrerako ikasle talde batek hartu du aurten igerilekuko tabernaren ardura. “Irailean Hego Koreara eta Indiara joango garenez, dirua lortzeko hartu dugu taberna”, azaldu digu Joseba Ortégak. Oso esperientzia ona dihardu izaten eurentzat eta gustora dabilta. “Jendearekin oso harreman ona egin dugu. Eguzkia egiten duen egunetan jende dexente ibiltzen da, baina ondo moldatzen gara”.

Igerilekua zabaltzen dutenean irekitzen ditu ateak tabernak ere, eta eskaintza zabala dago bertan. “Edariak, kafeak, izozkiak, patatak eta bestelako paketeak, bokatak, pizzak eta hanburgesak”, diosku Ortégak.

“Herriz herriko memoria berpizteko saioa da hau”

AIERT ZUBIGARAI “BIZKAI” • Komikigilea



"Emakumeon memoria 1937, Intxortatik Artxandara" deitzen da bere proiektu osoa. Herriz herri, eta komikiz komiki, jarraitu nahi izan dio pista Elorrioko semeak 1936ko gerrari. Horretarako, testigantza errealak hartu ditu oinarri, eta fikzioa baliatu du gero egia historiko hori kontatzeko. Eibarri ere bere protagonismoa eman nahi dio, une honetan aurrera zelan jarraituko duen oso argi ez badu ere. Kementsu ikusi dugu "Bizkai".

Dagoeneko komiki sorta zabalaren lehenengo alea kaleratu zuen apirilera, Elgetaren berri ematen diguna. Buru-belarri sartuta dago bigarrenean, Elorrio bere jaioterriarenean, baina hor bere poltsikotik ere jarri behar izan du. Horregatik, hasieran zuen asmoa, "Emakumeon memoria 1937, Intxortatik Artxandara" proiektua, ez daki zenbaiteraino gauzatuko ote den. Eibarrek bazuen hor bere tokia, hirugarrena hain zuzen ere, eta atzetik zihoazen Durango, Larrabetzu... testigantzez testigantza, azkenean Burdin Hesia erori ostean Bilbon gertatu zena kontatzen amaitzeko. Memoriaren aldeari informazio grafikoarena gehitu dio lanean gidoilari eta komiki marrazkilariak, ahalegin berezia ginez.

Zer moduz joan da Elgetakoaren kaleratzea?

Esku artean dudan hau da saldu barik dagoen euskarazko ale bakarra; beste bat dut etxean pertsona bati oparitzeko. Oso ondo joan da guztia eta harrera polita izan du lanak. Hori bai, zabalkunde lan handia ere egin da: hiru aurkezpenetik kanpo, sare sozialetan eta egunkarietan ere oihartzuna izan duelako. Tirada 250 aleena izan da eta, euskarazko guztiak saldu diren bezala, gaztelerazkoen %90etik gora bide bera hartu dute. Hori ikusita, bigarrena izango den Elorriokoaren 1.500 ale atera beharko ditugu bakoitzetik.

"Lehen lana guztiz agortuta dago: euskarazkorik ez da geratzen; bigarrenaren tirada handitu beharko dut, 250etik 1.500era"



Egileak dagoeneko kalean dagoen Elgetako lanaren orrialdeak erakutsi dizkigu.

Zelan sortu zen proiektua? Zergatik behar hori?

Elorrioko gudarena banuen buruan, 1477koa, ganboino eta oñazinoen artekoa: 400 zaldi, 4.000 soldadu, jauntxo baten idatzia besterik ez, 14 urteko neskatila protagonista, sorginak... Eta lagun batek esan zidan: zergatik ez duzu 1937ko gerrari buruzko zeozer egiten, gaur egunera ekarri? Eta ideia polita iruditu zitzaidan, buruko min asko ekarri badizkit ere. Pertsonaien arteko harremanak lantzea gustatzen zait, giza gatazkak, horiek



Elgetako lanaren euskarazko edizioa alerik ez da geratzen, eta gaztelarazkoak ere gutxi batzuk besterik ez daude salgai.

direlako garrantzitzuenak. 1937ko hori tarte polita da, herria pasatzen delako errepublikanoa izatetik faszista izatera, lehen biktimak izatetik gero borrero izatera. Konfliktu askoko sasoia da eta badago non landu. Gainera, Erdi Aroko gai batekin erreferentziak ere gutxi badira, XX. mendeko horretan testigantzak badira, testuingurua estuagoa da eta asmatzeko tartea urriagoa. Horrela hobe, pertsonaiak askatu egiten baitituzte. Gidoiarekin badakit zelan funtzionatuko duen; hala ere, ikerketa asko egin behar izan dut, baita grafikoki ere.

Nondik hasi zinen? Non aurkitu zenituen arazo gehien?

Sostengu instituzionala lortzea da latzena. Burokraziak nola funtzionatzen duen joan naiz ikasten. Alta eman

"Komiki bakoitzak 16 bat hilabete eskatzen dizkit: ikerketa dela, finantzazioa, gidoia eta marrazkiak, marketina..."

behar izan nuen autonomoetan artista bezala, eta nire lanean zortzi ordu egitetik lau egitera pasatu nintzen. Baina gastuak berdina ditut, eta gutxieneko diru-iturriak behar ditut. GKE-etan, esaterako, soldatapeko jendea dute horrelako txostenak egiteko, profesionalizatutakoak. Nire terapeutak ere esan zidan, liburua ateratzeko: "Zelan ilustratzailea izan saiakeran bizitza galdu barik". Bestela, elkarte memorialistetatik, beste hizkuntzara pasatzeko, bestelakoetan laguntzeko, jendea oso prest izan dut. Gidoia zuzentzen ere, gaia egokien jorratzeko hainbat kolektiboren laguntza jaso dut.

Zeintzuk dira protagonistak? Zergatik aukeratu duzu emakumeen memoria?

Emakumeak zergatik? Gizonezkoen inguruan asko esan delako dagoeneko. Grezia garaitik gaur egunera arte begiratzen baduzu gizonezkoen zenbat erreparatu diogun eta emakumezkoen zenbat, emakumeenekin bakarrik hasiko bagina bien artekoa berdintzeko, zenbat urte beharko genituzke? Bere lekua eman nahi izan diot emakumeari. Gerran bizi izan zutena ere desberdina izan zen: gizona trintxeran zegoen, eta emakumea herrian. Baina sufrimendua berdina da, eta emakumezkoen kasuan seme-alaben ardura ere gehitu behar diozu. Emakumezkoen ikuspuntua interesgarriagoa irudituz gertatzen da.

ELKARRIZKETAREN
BIDEOA



Eibarko istorioaren protagonista nagusia 1919. urtean jaioakoa Pilar izango da, gurasoen esanaren aurka miliziano sartuko dena.



Zergatik hasi zinen Elgetatik? Elorriok jarraitzen du izaten bigarren etapako protagonista?

Berez, lehenengo kapitulua Elorriokoa izan beharko zen. Gauza da Lamunarrietatik -Cuatro Mojones- sartu zirela Besaide inguruan. Ondoren Elorriora jaitsi eta Intxortarantz bota ziren, Bergarara begira zeuden gudariei bizkarra hartuz. Mairuak izango ziren seguru-enik, sugandila bezala mugitzen zirela diotelako, oso arin. Paisaiak ere ez zuen gaur egungoarekin zerikusi handirik, basorik apenas zegoelako. Elorriokoarekin topera nabil orain: gidoia eginda nuen, beste buelta bat eman eta luzatzeko asmoa badut. Etengabeko formazioan dihardut, Durangoko eta Arrasateko irakurketa klubekoekin egon naiz, baita Julen Rivasekin ere. Orain dela hiru hilabete amaitutzat jo nuen, pertsonak marrazteko prest nago. Orain lan burokratikoa egiten nabil. 2026ko irailerako amaitu nahi dudalako, horrela urrian hurrengo proiektua kateatzeko, zein udal dagoen prest proiektuan sartu eta bertako ikerketarekin hasteko. Elorrion gertatu zaidanaren antzera, sostengurik ez badut lortzen... Nire dirutik nabil jartzen horretarako. Hori ikusita, Elgetakoaren ondoren, asko jota beste bi geratuko zaizkit: bata Elorriokoa da. Bestea zein?

Eibar izango da hirugarrena? Noiz kaleratzeko asmoz? Zertan lagundu dezakegu eibartarrok?

Egia esateko, Elorrion jasotako eskarmentuaren ondoren, gustatuko litzaidake Eibarkoa egitea. Lotura handia dudalako zuen herriarekin: ama jostuna izanda, Alfako makinak etxean betidanik izan ditugulako; aitak Alfan egin zuen lan, eta berarekin askotan joan nintzen bertara. Hortik aparte, Errepublika proklamatu zen zuenean, 34ko Iraultzak ere hor beste inon baino

Aiert Zubigarai "Bizkai" komiki marrazkilaria

"Laumunarrieta 1937" elkarte memorialistaren kide da. Aurretik Zapla! fanzinean hartu zuen parte, Bergara eta Arrasateko jendearekin. Eta baita "H28"an ere, Asisko Urmeneta eta Olariagarekin, "bi urte eta erdi inguruan, era digitalean batez ere"; eta kolaborazioak egin zituen "La Gallina Vasca"rentzat. Orain Carla Berrocal-en lana irakurtzen dabil, "bollerak western bat" eta Javier Isusiren narrazio estiloa du gustuko, "tranparik ez diodalako nabaritzen, jakinda ere istorioak kontatzerakoan beti daudela hor". Goizeroren azken lana, Paco Roca, Zapico, guztiak Espainiako Sari Nazionala jasotakoak, horiek irakurtzen ditu. Kaleratutako Elgetaren komikia erosteko aukera izatekotan, gurean Yraolagoitia liburudendan edo, bestela, Calbeton kaleko Gisasola estankoa izango duzue.



Komikiaren egilea gurean izan zen martitzenean.

indar handiagoa izan zuen. Pili istorioko protagonista, gainera, nire alter egoa da: guztia kontra izanda ere, arazo guztien gainetik aurrera egin eta bere helburua lortzen duena, benetako epopeia bat. Eibarren izandako esperientzia halamoduzkoa izan da orain arte: batzarra egiteko itxaron behar izan nuen pixka bat, baina oso ondo joan zen, guztiei gustatu zitzaizen, eta 3.000 euroko dirulaguntza ere onartu zuten Plenoan. Baina pandemiarekin hor geratu zen asuntua. Gustatuko litzaidake Eibarko kapitulua egitea.

Ordu asko kentzen dizu lanak? Zeintzuk dira iturriak?

Komiki bakoitzak 16 bat hilabete eskatzen dizkit, eta tarte horretan ezustekoak ere izaten dira, bai. Afalostee-tan eta asteburuan lan egiten dut. Proiektuan ikerketa dago alde batetik, hor gehiago gozatzen dut, bizipenak entzuten etabar; gero finantzazioa dugu, bi hilabete eta erdi behintzat kenduko dizkizunak, e-mailak alde batera eta bestera; gidoia eta marrazkiekin seitek bederatzi hilabeterako epe horretan ibiltzen naiz; eta, azkenik, marketinga eta salmenta ditugu. Hartu motorra eta harat-honat, eskerrak Elkar-ek ere laguntzen didan. Prentsaurrekoak direla eta ez direla, ni ez naiz horretarako abiatu. Eskerrak gero, kalean, jendeak esaten didan gustatu zaiela eta zoriontzen nauen.

Dendetan eskaintza zabala dago eta orain, gainera, merkeago

Beharpenen sasoi betean gaude. Batez ere moda artikulua aurkitu ditzakegu ohikoa baino prezio baxuagoan, baina beste salgai askori ere eragiten diete beharpenek. Herriko establezimenduetatik zehar buelta bat emanez gero, Eibarren ia denetarik aurkitu dezakegula konturatuko gara eta, noski, aurrez aurrekoak ematen duen xarma horrekin erosi ahal izango dugu.



Emakume, gizon, haur, gazte eta helduentzako aerropadendak; zapata-dendak; kirol artikulua; informatika eta gailu elektronikoak; lurrinaketa kosmetika; bitxi-dendak... Hirugarren sektorea nagusi da Eibarren eta herriko dendetan ia edozer gauza aurkitu dezakegu beste edonora jo behar izan gabe, fisikoki edo birtualki. Denda batzuek hamarkadak daramatzate zabalik, batzuek ateak itxi egin behar izan dituzte berriki eta beste batzuek hartu diete lekukoa, baina hori da bizirik dagoen merkataritza baten pulstua.

Errebal kaleko Umea dendak zenbait hamarkada daramatza zabalik eta herriko arropa-denden ikurretako bat da. Emakumeentzako jantziak saltzen dituzte, hautaketa txukuna eginez, eta aurten beste urte batzuetan baino lehenago hasi dute beheraldien sasoi. “Normalean Sanjuanen os-

tean hasten dugu, baina ekainaren 23a astelehena izan da aurten eta 20an astea erabaki genuen”, azaldu digute.

Beharpenak noiz hasi dendarien esku geratzen da, Umean esan digutenez: “Beharpenen kontua orain liberalizatuta dago eta norberak erabakitzen du noiz hasi. Lehen erregulatuta zegoen eta uztailean lehen hasten ziren. Hori diot beherapenak jartzeko eta iragartzeko, deskontuak urte guztian zehar egin ditzakezulako”. Eta zein alde dago beharpenen eta deskontuen artean? “Ezer ez, zerbait psikologikoa dela uste dut, azken finean berdina delako, beherapenetan deskontuak egiten baitira”.

Urtean zehar, Umean ez dute deskonturik egiten eta neguko eta udako beherapenetan bakarrik aurkitu ahal dira hango produktuak prezio baxuagoan. Uda honetako beherapenetan ez dute mugimen-



Herriko dendariak orokorrean pozik daude aurtengo udako beherapenetan dagoen mugimenduarekin. EKHI BELAR

du berezirik igarri Umean, baina egunaren arabera martxa gehiago edo gutxiago dago. “Udaberri-uda kanpaina bezala, nahiko lasai doa bestela ere”, esan digutenez.

Uztaila amaitzearekin batera pasako dute udako modaren kapitulua, abuztuan ateak itxiko dituztelako, eta oportetarik bueltan udazkenari begira zabalduko dituzte ateak berri.

Udako lehen beheraldiak

San Agustin kaleko Glow Up dendak aurtun zabaldu ditu ateak eta udako beheraldiak egiten dituzten lehen aldia da. Arropa, osagarriak, oinetakoak... Eskaintza bizi eta freskoa aurkitu dezakegu bertan eta martxa betean topatu ditugu beheraldi hauetan. “Uztailaren lehen hasi genuen beheraldien sasoia eta oso ondo doa orain arte”, aitortu digutenez. “Jendeak gogoarekin hartu duela igartzen da”.

Beheraldien sasoi betean daude herriko dendariak eta Udako Factoring-arekin emango diote errematea

Udako beheraldien sasoia negukoa baino motzagoa izaten da eta, horregatik, denda batzuek hasiera aurreratu egin dute

Denda nahiko berria izanik, beheraldietan nolako erantzuna jasoko zuten zalantza bazuten, baina erantzuna ona izan da bezeroen aldetik. Hori bai, euren aldetik ere, beherapenak egiteko orduan eskuzabal jokatzeko saiatu dira. “Topera hasi gara. Arropari dagokionez, produktu guztiei jarri diegu deskontua. Beraz, arropa, zapatak eta poltsak prezio baxuagoan aurkitu daitezke”, esan digutenez. “Eskuz egindako produktuetan, oster, prezioei eutsi diegu. Eskuz eginikoak izanik, hori erresetatu nahi izan dugu”.

Umea dendak bezala, abuztuan ateak itxiko ditu Glow Up-ek, eta normalean uztailaren erdialde edo amaiera inguruan egiten den Factoring-ean ere ezin izango dira egon. “Lankidea oportetari doa eta, ni bakarrik geldituko naizenez, ezin izango gara Factoring-ean egon, baina hurrengo batean badugu ego-terko asmoa”, dioskue.

Beheraldietan eibartarrek ematen duten erantzuna ona izaten dela esan digute zenbait dendarik



Gelditu barik

Bidebarrieta kaleko Twins saltokiak Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren 10 Bitxiak sarietako bat eskuratu du berriki, Debabarrena eskualdeari dagokion bitxia, hain zuzen ere. Ekitaldian Ganberak Gipuzkoak bere tokiko merkataritzarekiko duen konpromisoaren eta tokiko merkataritzak berak lurraldearekiko duen konpromisoaren garrantzia nabarmendu zuen.

Udaberri eta udako kanpaina nahiko motel hasi zutela aitortu digute Twins-en, “Aste Santua tarteko, ez zuelako eguraldi zoragarririk egin eta hemen eguraldiak asko baldintzatzen duelako”, euren ustez. Hori bai, maiatzetik aurrera egoera aldatu zen, eguzkiak protagonismoa irabazi zuelako. “Umeen arropen sektorean asko igartzen da hori”.

Ekainean hasi ziren produktua deskontuekin eskaintzen. “Interne-teko dendetan promozioak, deskon-



Herriko dendetako karteldegia moldatu egin dute beherapenetarako. EKHI BELAR

tuak eta abar aurkitu ditzakezu, eta horren aurka ezin duzu ezer egin, jokoan sartu besterik ez”, esan digutenez.

Twins-en produktu guztiei jarri diete deskontua, baita urte osoan zehar saltzen diren gauzei ere (txandalak, barruko arropa...). “Ez dugu hautaketarik egiten, produktu guztiei jartzen diegu deskontua, datorren denboraldirako berritzeko asmoz. Oso gauza gutxi geratu ohi da hurrengo denboraldirako”, dioskue.

Twins bai egongo dela Factoringean. “Trailean ‘Umeak eskolara’ kanpaina hasten da eta ordurako denboraldi berriko arropa eduki behar duzu. Abuztuan ez dugu ixten eta arropa berria jasotzeko eta kokatzeko aprobetxatzen dugu”, eta horretarako beherapenen sasoia eta Factoring-a berebizikoak dira tokia egiteko. “Factoring-ak oso ondo funtzionatzen du. Klean saltzeak asko eragiten du. Jendeak modu inpulsi-boan erosten du”, Twins-ekoen ustez.

Arrate bezperako bertso-afariak 32. edizioa biziko du

Oraingoan ere kartel bikaina aurkeztuko du Tiro Pitxon jatetxean irailaren 7rako ...eta kitto!-k antolatutako bertso-afariak. Iazko saioko bi bertsolarik, Andoni Egañak eta Maialen Lujanbiok, errepikatuko dute oraingoan ere, eta, Iker Zubeldia eta Maider Arregi izango dituzte lagun laukotea osatzeko.



Iaz parte hartu zuten Andonik eta Maialenek errepikatuko dute.

Bertso-afaria betiko orduan, 21:00etan, hasiko da Arrate bezpera, jausiko den domeka horretan eta, lehenengo ondo afaldu ondoren, jarraian saio polita eskaintzeko gogoz arituko da bertsolarien laukotea. Prezioan ez dago aldaketarik eta aurrekoen berbera izaten jarraituko du. Laugarren urtea da Tiro Pitxonek bertso-afaria hartzen duela, aurretik Kantabrian egindako 27 edizioei segida emanez. Egia esateko, pare bat urtetako etena ere egon zen hor: 2020an pandemiak ez zuen ahalbidetu bertso-afaririk egitea eta hurrengo urtean, 2021ean, saio berezia egin zen, Arrateko elizak hartu baitzuen tarte, hori bai, jende gutxiagorekin eta bapo afaldu gabe.

Tiro Pitxonek laugarren urtez jarraian hartuko du irailaren 7ko bertso-afaria

Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen “aginduetara” jardungo duen laukotean bi “beterano” (oso gazteak ez badira ere, adinari begira baino, Arraten askotan izan zirelako) eta bi aurpegi berriagoak izango dira saioa egiten. Iker Zubeldia zegamarra (eta gaur egungo bertako alkate) iazko saioan zen egote-

koa, baina, ahots-arazoak tarteko, Agin Laburuk bete zuen bere tokia azkenean. Horrela, antolatzaileek tokia gorde diote “kaldereroari” aurtengorako. Eta Arraten debutatuko duena Maider Arregi oñatiarra izango da, orain dela hamarkada bat pasatxo Gipuzkoako eta Euskal Herriko Eskolarteko bertsolari txapelketak irabazitakoa bera. Iaz Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finalerdietara iritsi zen. Filosofian graduatua dugu eta militante transfeminista ere bada, beste emakume bertsolari eta bertsolari feministekin batera 2021ean lehenengo Señora Sariketa antolatu zuenetakoa.

Sarrerak erosteko orduan ere urteroko bidetik jo dute antolatzaileek eta, horrela, bazkideek aurretik eskuratu ahal izango dituzte ...eta kitto!-ko lokaletan, bi euro gutxiago ordainduz. Ordu-tegia honakoa izango da: goizez, 10:00etatik 13:00etara; eta arratsalde, 17:00etatik 19:30era. Datorren astelehenean hasi eta hilaren 23ra arte egongo da aukera hori, eta uztailaren 24tik aurrera ohiko tabernetan (Guridi, Kultu eta Tiro Pitxon) erosi ahal izango dira, 40 eurotan.



Azken edizioan ere Tiro Pitxon lepo bete zen bertsolarien jardunaz gozatzeko.

“Gertatzen ari zaiguna da Iparraldean ari garela jotzen Hegoaldean baino gehiago”

IÑAKI ORTIZ DE VILLALBA • Modus Operandi



Amañako jaien 47. edizioa hasiko da gaur (mus txapelketa aurreko asteburuan jokatu bazen ere). SD Eibar Fundazioko futbol egokituaren taldeak botako du txupinazoa, 19:00etan, eta musika gailenduko da ondoren. Lehenik, umeen danborrada egongo da, gero erromeria Mugi Panderoa taldearen eskutik, eta gauean bi talde igoko dira oholtzara: Modus Operandi eta Lendakaris Muertos.

Iñaki Ortiz de Villalba ‘Modus Operandi’ taldeko abeslariarentzat ez da lehen aldia izango Amañan, 2015ean Betagarri taldearekin aritu baitzen bertan. Talde horretan ibilbide luzea egin ondoren, Ortiz de Villalbak Modus Operandi sortu zuen Lau-ropa eta Vendetta moduko taldeetan aritutako beste musikari batzuekin batera. Zortzi urte daramatzate bide horretan eta Amañan jotzeko gogotsu daudela esan digu abeslariak.

Nola gogoratzen duzu 2015ean Betagarriarekin Amañan eskainitako kontzertua?

Gogoratzen dut Amañako jaiak oihartzun handiko jaiak izan direla beti eta ez genuela espero horrelako jendetza bertan biltzea. Oso oroimen polita dut. Nahiko bitxia iruditu zitzaidan, aldapa batean jo genuelako. Bestalde, gogoratzen dut Lambretta edo Vespa motorren kontzentrazioa ere egon zela.

Bai, Lambretta motorrena izango zen. Zu ere motorzalea zara?

Bai, nik ere motorra dut, baina Vespa markakoa.

Aldapan jo zenuela aipatu duzu, beste batzuetan areto handiagoak tokatuko dira, txosnak... Nola moldatzen zarete toki ezberdinetara?

Betagarriarekin jo izan genuen toki handiagoetan, beste baldintza eta azpiegitura dezenteagoekin, baina Modus Operandiarekin txosnetan eta horrelako tokietan jo dugu gehiago. Oraindik ez dugu plaza handietan jotzeko pausoa eman.

Txosnetan, Amañan gertatuko den bezala, jai-giroan joko duzue. Giro horrek eragiten dizue kontzertua emateko orduan?

Hori oso garrantzitsua da. Jendea kontzertuan sartuta eta jai-giroan badabil, kutsatu egiten da eta kantuak hobeto egitera eta eroso egotera bultzatzen gaituzte. Feedback hori ez baldin badago, bakoitza bere kon-tuetara badago edo kontzertuaz paso egiten... Betagarriarekin gertatu izan zaigu jotzen egon eta jendea beste albo batera begira egotea. Ez pentsa kontzertu guztiak berdinak zirenik. Horren aurka ezin duzu ezer egin. Askotan hizketan egoten da jendea, guztiok egin izan dugun bezala. Errespetu falta da, baina ulertu behar da, nik neuk ere egin izan dut. Zentzu horretan, kontzertua-ren ordutegia oso garrantzitsua izaten da. Nahiko goiz egiten bada eta jendea oraindik ez badago oso kargatuta (zentzu guztietan), giroa bat da; baina 23:00 edo 00:00 inguruan egiten bada, nahiko ordu normala dena, jendeak kontzertuan ditu jarrita zentzu guztiak. Bestalde,



Modus Operandi taldeko abeslaria da Iñaki Ortiz de Villalba. BERRIA

oso berandu bada eta jendea oso pasatuta badago, beste modu batean hartzen du. Amañan ordu nahiko txikietan joko dugula uste dut. Ea nola erantzuten duen jendeak. **Zuek urte asko daramatzazue musika egiten. Jendea hizketan aritzen dela esan duzu eta beste asko mugikorrekin egoten dira. Kontzertuak bizitzeko moduan aldaketak igarri dituzue?**

Ez da nire santu hartua, baina orain dela egun batzuk ikusi nuen Enrique Bunbury kontzertua gelditu zuela mugikorrean grabatzen ari zen norbaiti zerbait esateko, kontzertuaz goza zezala grabatzen ibili beharrean edo horrelako zerbait. Guretzat garrantzitsuak diren momentuak grabatu nahi izaten ditugu, oroigarri gisa, gero berriz ikusi eta bizitzeko, momentua hilezkorra izateko. Sare sozialetan partekatzeko ere grabatzen da, noski. Nik ere egin izan dut, baina beste alde batetik momentuko esentzia hori galtzen ari gara. Tira, ulertzen dut grabatzea, bizi izandako gauzen %80 ahaztu egiten dugulako, oso memoria ona ez baduzu behintzat, nik neuk ez dut, eta horregatik grabatzen dut.

Nolako kontzertuak eskaintzen saiatzen zarete?

Jai-giroa sortzen saiatzen gara. Nahiko zuzeneko polita

“Pandemiaren sasoian oso talde gutxi zegoen, baina harrezkero izugarria izan da euskal taldeen loraldia”

dugula esango nuke. Jendeak ezagutzen dituen kantuak ekartzen saiatzen gara. Kontzertuaren erdia jendeak ezagutzen dituen abestiekin osatzen dugu. Ez gara berbena bat, baina kantu ezagun pila bat jotzen ditugu. 2023an bertsioen diskoa kaleratu genuen eta handik 3-4 abesti jotzen ditugu, gero Betagarriren beste pare bat nahiko ospetsuak, eta ‘Egunero’ abestia ere jotzen ari gara, Vendetta taldeko Enrikko Rubiños eta Ruben Antonek gurekin jo dutelako proiektu honen hasieran. Beraz, nahiz eta jendeak gure kantu propioak ondo ez ezagutu, ‘Gure bihotzak’, ‘Dantza gaitezen’ eta bertsioak entzunda poz-pozik joan daitezke etxera. Horrela egiten

dugu euskal panoraman lekutxo bat aurkitzeko, baina gertatzen ari zaiguna da Iparraldean ari garela jotzen Hegoaldean baino gehiago.

A bai? Zergatik?


Asko konektatu dugu Iparraldeko publikoarekin, ez dakit zergatik. Eman ditugun kontzertuen erdiak han eman ditugu. Hegoaldean ez gara zorionekoak izan. Eibarren kontzertua emateko aukera irten zitzaigunean, oso pozik geratu ginen. Batetik, Lendakaris Muertosekin joko dugulako; eta bestetik, Amaña bezalako auzo batean delako. Baina horrelakoak gutxitan gertatzen zaizkigu. Txosnetatik eta horrelakoetatik ere oso gutxitan deitzen digute.

Azkeneko urteetan gauzak asko aldatu dira euskal musikaren eszenan?

Bai, dezente. Modus Operandirekin hainbat estilo lan-tzen ditugu, pop eta ska ukituarekin. Ez dakit nola kalifikatu eta ez zait gehiegi gustatzen zigilu bat edo beste jartzea ere. Kontua da hor ari garela borrokatzen.

Zortzi urte dira taldea sortu zenutenetik. Nolakoa izan da orain arteko bidea?

Primerakoa! Lehenengo urtea oso potentea izan zen. 50 kontzertu inguru eskaini genituen. Nobedadea ginen eta jende guztiak nahi gintuen bere plazan. ‘Gure bihotzak’ singleak oso ondo funtzionatu zuen eta sasoi hartan oso talde gutxi zegoen, baina pandemiaren geroztik izugarria izan da euskal taldeen loraldia. Orduan, hainbeste talde-ekin normala da gutxiago jotzea eta agian orain beste batzuk egon behar dira gu egon ginen egoera horretan. Horrelakoa da bizitza. Hiru disko ditugu. Lehenak, ska doinuak ditu gehiago. Bigarrena, ‘Altza gaitetzen’, Modus Operandiren espiritua ondoen islatzen duena dela esango nuke, pop-dance musikarekin. Pandemiaren atera genuen, nahiko egoera zailean. Esan behar da pandemiaren ere jo genuela, jendea eserita egon behar izaten zenean. Hirugarren diskoa atera genuenean, bestalde, jende guztia atera zen: Bulego, Zetak, Izaro... Ia astero ateratzen zen talde berri bat. Gainera, musika egiteko eta grabatzeko modua ere aldatu egin da. Orain, ordenagailu batekin, ia edonork ekoiztu dezake musika.



“Oraindik ez dakigu, baina ziurrenik datorren urteko Durangoko Azokarako disko berria kaleratuko dugu”

Bideoak ere mugikorrarekin egiten dira askotan. Mar-txa hori eramatea zaila egiten zaigu. Abestiei denbora eskaini behar diegu, baita bideoklipei ere, horretarako denbora behar dugu. Ezin dugu hilero zerbait ekoiz-ti. Ez goaz abiadura horretan.

Zein da Modus Operandiren egiteko modua? Zein errit-motan jotzen duzue?

Urtebeteko plangintza egin ohi dugu, normalean Du-rangoko Azokari begira. Oraindik ez dakigu, baina ziurrenik datorren urteko Durangoko Azokarako disko berria kaleratuko dugu. ‘Kantu hura’ abestia egin ge-nuen, baina ez dakigu diskoan joango den, ea diskoaren filosofiarekin bat egiten duen.



Uztailak 11, barixakua:

Txupinazoa: SD Eibar Fundazioko futbol egokitua / Umeen Danborrada
Kontzertuak: Mugi Panderoa, Modus Operandi, Lendakaris Muertos

Uztailak 12, zapatua:

Artisautza Azoka / Herri-bazkaria
Helduen Danborrada / Parrillada
Skapaie elektro-txaranga / Gora Herria

Uztailak 13, domeka:

Gaztelu puzgarriak / Txokolate-jana
Txorizo ogitartekoak / Puro Relajo

amañako jaiak



**irailak 7
domeka**

**ARRATEKO
BERTSO AFARIA**

**Tiro Pitxon
21:00**

Sarrerak salgai
BAZKIDEENTZAT
uztailaren 14tik 23ra
...eta kitto!-n (38€)
(10:00-13:00 / 17:00-19:30)
Uztailaren 24tik aurrera
Guridin, Kultun eta
Tiro Pitxonen (40€)



ANDONI EGAÑA



IKER ZUBELDIA



MAIDER ARREGI



MAIALEN LUJANBIO

Deportiboko lau atleta sailkatu dira aire zabaleko Espainiako txapelketetarako

Aurreko asteburuan, bi eguneko jardunaldietan, Aire Zabaleko Espainiako bi txapelketa jokatu ziren: 18 urtetik beherakoena Castelló de la Planan eta 23 urtetik beherakoena Badajozen. Lehenengoan Elene Arrazolak hartu zuen parte eta bigarrenean Garoa Magunazelaia eta Imanol Egidazu izan ziren. Ugaitz Garzia laugarren sailkatua hilaren azken asteburuan izango da Badajozeko Villafranca de los Barros herrian jokatuko diren 20 urtetik beherakoenen txapelketan; 3.000 metro oztopoak proban hartuko du parte.

Elene Arrazolak 100 metroko abiadura proban hartu zuen parte Castellón. Bigarrena bere seriean,

laugarren sailkatu zen final-erdikoan eta 7 ehunekoengatik geratu zen finaletik kanpo. Badajozen denarik izan genuen: dekatloi probako dominaren bila azken unera arte jardun zuen Imanol Egidazuk batetik, eta parte hartu barik geratu zen Garoa Magunazelaia bestetik, Estrasburgotik Garoa eta bere xabalina zekarren hegaldia bertan behera geratu zelako. Egidazuk bere mailarik onena eman zuen; bigarren sailkatu zen 110 metro hesietan eta disko jaurtiketan, azken horretan marka pertsonala eginez; aurrekoek gain, hiru garren sailkatu zen pertika eta pisu jaurtiketa probetan, eta laugarren egin zuen 400 metrotan, hor ere bere marka onena ezarritz.



JAZeko bikotea Legutioko triatloiko EHko txapelketan

Zapatuan Legution jokatuak distantzia olinpikoko Euskal Herriko txapelketak gure herriko JAZ taldeak bi ordezkari izan zituen. Joakin Amorrostak 33. postuan amaitu zuen proba eta 23 urtez azpiko mailako laugarrena izan zen; beraz, podiumera igotzeko gertu egon zen. Aitor Fernandez, bestalde, 74. tokian helmugaratu zen, beterranoen B1 mailako 13.a izateko.



SD Eibar-ek Areitioko instalazioetan hasi du aurrendenboraldia

Eguaztenean egin zuten Beñat San Joseren aginduetara izango diren jokalariek aurrendenboraldiko lehen entrenamendu saioa. Oraingo honetan Atxabalpe atzean laga eta Areitio gaineko instalazio berrietan; hori bai, zaletuek oraindik ezingo dituzte ikusi saio horiek.



Urteko lehen zatia amaitzekotan dira Deporreko mendizaleak

Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordekoei hilaren azken asteburuan egingo duten hiru eguneko irteera falta zaie bakarrik oporren aurreko lehen zatia amaitzeko. Aurreko zapatuan egin zuten ikasturteko egun bakarreko azken irteera, Zugarramurdin abiatu eta Beran amaitzeko, tartean 758 metroko Arxuria eta 698ko Ibanteli tontorrrak eginez. Eguraldi zoragarria lagun zutela, 37 mendizale bildu ziren txangoa egiteko; eta ondo baliatu zuten zituzten bi aukerez gozatzeko, bakoitzak bere gustukoena jarraitzeko, “biak taldean eginez”. Ibanteli gailurrak, gainera, panorama ezin harrigarriagoa eskaini zien bertaratutakoei bai euskal baserrialdera zein ozeanora, edo Larrunera, Ibardin lepora,



Aurreko zapatuko irteeran parte hartu zutenetako batzuk Ibanteli tontorrean.

Aiako Harrira edota, ekialdean, Pirinioetara begira.

Goian esan bezala, hurrengo eta azken irteera Pirinioetara izango da, hiru egun pasatzeko (hilaren 25etik 27ra) Val d’Aran, 3.109 me-

troko Maupas eta Vallée de Lys-en. Horrekin amaituko dute urteko lehen zatia eta, abuztuko oporren ondoren, irailean berriro ekingo diote urteko egitarauari, Herri Txiki txangoen zikloko irteera batekin.



Kirol Merezimenduen Sarien banaketa

Zapatuan Unben egindako ekitaldiarekin Udalak herriko kirol-kluben eta kirolarien lana eta dedikazioa publikoki aitortu nahi izan zituen eta, sariesz aparte, omenaldi berezia eskaini zion eskubaloia laga duen Mikel Zabalarri, Eibartik irten eta Irungo Bidasoan eta gazteen mailako selekzioan hegaleko jokalaririk egindako ibilbidearengatik.

Izen-ematea zabaldu dute Xake Eskolan

Xake Eskolarako izen-ematea zabaldu dute Klub Deportiboan, 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. 10 ikasleko bi talde baino ez dira egongo eta barixakuetan jasoko duten klaseetako ordutegia honakoa izango da: hastapenekoan bakarrik 2013 eta 2017 urteen artean jaiotakoek hartuko dute parte, 18:00etatik 19:00etara; eta jarraipena eta hobekuntzakoan bakarrik 2013 eta 2014 urteetan jaiotakoak izango dira, 19:00etatik 20:30era. Klaseak irailaren 18an hasiko dira Deporreko egoitzan eta hileroko prezioa 12 eurokoa da (liburuak eta sariak barne). Izena emateko xakea@deporeibar.com helbidera idatzi daiteke; irailaren 15ean amaituko da epea.



Gazako Sol Band Soraluzen arituko da eguaztenean

Sol Band taldearekin Palestinako egungo egoera, kultur sustraiak, eta musika gertutik ezagutzeko aukera izango da datorren astean, uztailaren 16an (eguaztena), Soraluzen. Taldearekin batera Mohammed El-Kurd poetaren testuak irakurriko dira. Ekitaldia 19:30ean hasiko da, Plaza Berrian.

Sol Band 2012an sortu zen, Gazako folk musika maite duen gazte talde baten eskutik. Musika-tresna tradizionalen eta modernoek konbinazioagatik eta hainbat generoren fusioagatik nabarmentzen da taldea, eta baita musikaren bidez transmititzen duten alaitasunagatik eta energiagatik ere. Talde palestinarrak mundu osoko audientziak liluratu ditu. Jaialdi, kontzertu, proiektu eta kultur ekitaldi askotan parte hartu dute. Sol Band-ek bere musika propioa ekoizten du eta Palestinako telebista nazionalerako 30 ataletan parte hartu du taldeak, kantu tradizionalen eta folklorikoen remake-ekin.



Arrakastarekin amaitu dira UEUren Udako Ikastaroak

Aste honetan amaitu da UEUren 53. Udako Ikastaroen edizioa, atzo Eibarren eta gaur Errenterian eskainitako bi ikastaroekin.



Arrasate Blues jaialdiaren zati bat gaur 19:30ean Zaizoin

Martxa betean dagoen Arrasate Blues jaialdiaren zati bat gurea ekarriko dute gaur ZaiZoi tabernakoek, 19:30ean hasiko den kontzertuan: Emilio Arsuaga (Madril) eta Greg Izor (Texas) arituko dira zuzenean, arratsaldea blues eta rock doinuekin betetzeko. Musikazaleak hunkitzeko moduko ikuskizuna izango da, “Hegoaldeko blues eta country kutsuko amerikar musikaren show hurbila. Bere zuzenekoak gogor eragiten dio publikoari, kantu originalak eta bertsioak nahastuta”. Abeslariak, harmonizistak eta gitarristak dira biak, eta maisuki uztartzen eta mugitzen dira, 2010az geroztik, Espainiako jaialdi eta areto garrantzitsuenetan agertokia partekatzen baitute. Gaurko emanaldiarekin itxiko dute kontzertuen denboraldia ZaiZoin.



Gabarra atera zuten eguneko argazki erakusketa ikusgai

Manu Sanchezen argazki erakusketa zabaldu zuten aurreko astean Topalekun, Bilbon gabarra atera zuten eguneko argazkiekin. Uztailaren 18ra arte egongo da zabalik, egunero 19:00etatik 21:00etara.



Amañak eztanda egingo du gaur arratsaldeko txupinazoarekin batera

Aurreko barixakun aurkeztu zituzten Amañako jaiak. Josean Alberdi *Goma* jaiaren antolatzaile nagusiak aurreratu zuenez, gaur arratsaldean, 19:00etan txupinazoa jaurtikiko duen SD Eibar Fundazioko futbol egokitua- ren taldearekin batera, gauean egingo den “kontzertu itzelean” parte hartuko duten Lendakaris Muertos eta Modus Operandi taldeek, herri-bazkariak, umeen eta helduen danborradek, eta Puro Relajo eta Gora Herria taldeen emanaldiek hartuko dute pisu nagusia jaiaren 47. edizio honetan.

Gaurko egitaraua umeen danborradarekin hasiko da, 18:00etan: Egogain gerontologia zentroaren aurrean arituko dira haurrak, bertako aitzitxa-amamei hainbat pieza eskaintzeko. Handik ordubetera, 19:00etan, jai hasierako txupinazoa botako dute SD Fundazioaren Genuine taldekoek eta, jarraian, umeen danborrada egingo da, Ermuko Irulitxa txarangakoen laguntzarekin. Ondoren, 20:30ean, Eibarko Mugi Panderoa taldearen erromeriak dantzan jarriko ditu auzoko plazan bildutako guztiak. Afaltzeko aukera ere izango du jendeak, jai-batzordearen txosnan ogitarteko eta pintxo zerbitzua egongo baita. Gaueko kontzertuak 23:30ean hasiko dira: Lendakaris Muertos taldeak joko du lehenengo, eta ondoren hasiko da Modus Operandi taldekoen emanaldia.

Bihar goizetik hasiko dira ekitaldiak, 10:00etatik 14:30era egingo den Artisautza Azokarekin. Paela protagonista duen ohiko herri-bazkaria, helduen danborrada, Skapaie elektro-txarangak girotutako parrillada eta Gora Herria taldearen berbena ere bihar izango dira. Eta domekan egun osoan zehar jarraituko du jaiak. Eguna agurtzeko, Puro Relajo taldeak kontzertua emango du, 19:15ean hasita. Egitarau osoa 31. orrialdean daukazue, Agenda atalean.



Eibarsax nazioarteko saxofoi jaialdia bihar amaituko da

Egunotan saxofoiak izan da protagonista Eibarren, Xabier Oruesagasti eibartarraren eskutik lehen aldiz egin den Eibarsax jaialdian. Domekaz geroztik, kontzertuak egon dira egunero, eta asteburu honetan izango dira azken emanaldiak: Hezkuntza Esparruan sorkuntza-egonaldia egin duten ikasleen saioa hartuko du gaur Azitaingo elizak, 20:00etan. Ikasleek Tobias Borsboom pianistaren laguntza izango dute. Eta jaialdiari amaiera biribila emateko, bihar saio bikoitza egingo dute: 12:30ean Azitainen, Tobias Borsboom-ek Ravel eta Godowskyren obrak joko ditu, goizerako girotutako kontzertuan. Eta 19:00etan, Errebal Plazan, Eibarsaxeko ikasle eta irakasle guztiak igoko dira oholtzara, elkarrekin azken emanaldia eskaintzeko.

Familientzat udako gida kalean

Udako oporrak gerturatzen ari direnez, Euskara Zerbitzuak eta Juan San Martin Udal Liburutegiak *Gozatu udako oporretan irakurtzen eta jolasean* gida sortu dute, familian gozatzeko moduko jolas eta liburuekin. Adierazi dutenez, “oporretan jolasean gozatzeko denbora gehiago daukagunez, ondo pasatu eta



ikasteko momentu egokia da. Gainera, jasota dauden baliabideekin, euskara indartzeko aukera ere izango dute familiek”. Gida HH eta LHko seme-alabak dituzten familia guztiei helarazi zaie, ikastetxeen laguntzari esker. Horrez gain, Interneten eskuragarri ipini dute (<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia/argitalpenak/umeentzako-irakur-gidak>).



7 ezberdintasun daude bi irudi hauen artean, saiatu aurkitzen



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5			7	6		3		9
						1		
9					8	7	6	
					5	6		4
		5				2		
8		7	9					
	7	9	1					6
		8						
3		4		8	2			5

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	4		1					
	2				9	3		
1	5		2				8	
2		5		7				
		4		1		5		
				5		2		7
	1				4		6	8
		9	8				3	
					7		2	

Uztailak 11/17

BARIXAKUA 11

AMAÑAKO JAIAK

18:00 Umeen danborrada, Egogain gerontologia zentroaren aurrean.

19:00 Jai-hasierako txupinazoa, SD Eibar Fundazioko futbol egokituaaren eskutik.

19:15 Umeen danborrada, Ermuko Irulixa txarangak lagunduta, Amañako plazan.

20:30/23:00 Erromeria, Mugi Panderoa taldearekin.

23:30 Kontzertua, Modus Operandi eta Lendakaris Muertos taldeekin. Amaña (plazan).

MUSIKA

19:30 Blues & R&B: Greg Izor eta Emilio Arsuaga. ZaiZoi taberna.



MUSIKA

20:00 Eibarsax saxofoi jaialdia. "Escena compartida", ikasleen kontzertua. Azitain (eliza).



ZAPATUA 12

AMAÑAKO JAIAK

10:00/14:30 Artisautza Azoka, Amañako plazan.

14:30 Herri-bazkaria: paella. Plazan.

18:45 Helduen danborradaren irteera, Irulitxa txarangak lagunduta, Amañako dorreetatik abiatuta.

20:30 Parrillada: saiheskia, txorizoa, oilasko-hegalak...

20:30/23:00 Skapaie elektro-txaranga, parrillada girotzeko.

23:15 Berbena, Gora Herria taldearekin. Amaña.

MUSIKA

12:30 Eibarsax saxofoi jaialdia. Tobias Borsboom-en errezitaldia. Azitaingo eliza.

19:00 Talde osoaren amaiera-kontzertua. Herriaren erdialdea (kalean).

DOMEKA 13

BISITA GIDATUA

11:00/14:00 Gerrako Fronteko bisita gidatua, aurretik izena eman dutenentzat. Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa (Arrate).

AMAÑAKO JAIAK

12:00 Txorizo-pintxoak, doan.

16:30 Gaztelu puzgarriak eta aparraren-jaia, jolasteko.

18:30 Txokolate-jana, gailatekin, umeentzat.

18:30 Txorizo-ogitartekoak salgai, euro batean.

19:15 Puro Relajo taldearen kontzertua. Amaña.

EGUAZTENA 16

DANBORRADAKO ARROPAK

17:00/20:00 Danborradako arropak bueltatzeko azken eguna. Bittor Sarasketako entsegu lokala (Beistegi eraikina).

ERAKUSKETAK

Uztailaren 18ra arte:

- **MANU SANCHEZ-en argazkiak.** (Topaleku).

Irailaren 28ra arte:

- **"ACHA Herramientas S.L. 85. urteurrena".** (Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

DEBA

11n (BARIXAKUA)

- **ITURRI ONDOAN**

22:00 Plaza Zaharra **Antzerkia: "Dada ü Lala"**

16an (EGUAZTENA)

- **MAREA GORA hitzaldiak**

19:00 Kultur Elkarte "¿Cuántos peces hay en el mar?"

Xabier Irigoien

- **ASTEAZKEN AKUSTIKOAK**

20:00 Gaztetxea **Neu taldea**

ELGOIBAR

11n (BARIXAKUA)

- **ULTRATRIL lasterketari ongietorria**

22:00/02:00 Azkarate

Uztailaren 11tik 13ra - **URAZANDIKO JAIAK**

SORALUZE

Uztailaren 11tik 13ra - **SAN ANDRESKO JAIAK**

16an (EGUAZTENA)

- **KONTZERTUA 19:30** Plaza Berria **Gazako Sol Band**

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **12an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **13an:** 17:00, 20:00
- **14an:** 19:30

“Una cena... y lo que surja”
KOMEDIA



2024 / Frantzia / 77'
Zuzendaria: Olivier Ducray
Aktoreak: Isabelle Carré,
Bernard Campan, Julia Faure
Auzokoen artekoa / Remake

2 ARETOA

- **12an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **13an:** 17:00, 20:00
- **14an:** 19:30

“Superman”
AKZIOA



2025 / AEB / 129'
Zuzendaria: James Gunn
Aktoreak: David Corenswet,
Rachel Brosnahan, Nicholas Hoult
Zientzia-fikzioa / Superheroiak

ANTZOKIA

- **12an:** 16:30, 19:30, 22:30
- **13an:** 17:00, 20:00
- **14an:** 19:30

“Jurassic World. El renacer”
AKZIOA



2025 / AEB / 134'
Zuzendaria: Gareth Edwards
Aktoreak: Scarlett Johansson,
Maharaha Ali, Jonathan Bailey
Zientzia-fikzioa / Dinosaurioak



FUNEUSKADI

Funeraria Mugica

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA

Funeraria Mugica

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951

www.funeuskadi.com

Elbar:

Otaola, 27

Elbarko bulegoa:

Bidebarrieta, 20

Elbar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao

Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Elgoibar:

Xorillon, s/n. SIGMA Industrialdea

(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:

Marqués de Valdespina, 16

ESKERTZAK ETA

URTEURRENAK

Urkizu, 11 - solairuartera

publizitatea@etakitto.eus

688 62 76 89

...eta kitto! 2025 | 07 | 04

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **TELMO**, atzo 3 urte egin zenduaz eta. Musu haundi bat etxequon eta, batez be, Julia arrebaren partez.



Zorionak, **ENeko!!!** Martitzenian 10 urte beteko dozuz eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, Eleneren partez!



Zorionak, **LORENA!** Domekan urtiak beteko dozuz eta. Musu erraldoi bat zure lankidien partez.



Ongi etorri etxera, gure **MAULE**. Famelixa guztiaren eta, bereziki, Laia eta Maren lehengusiñen partez.



Zorionak, **HODEI!** Gaur 6 urte betetzen dozuz eta. Askio maitte zaittugu, infinitora. Musu haundi bat etxequen partez!



Zorionak, **MARKEL**, gaur 9 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat etxequon eta, batez be, Aitana eta Maialenen partez.



Zorionak, **MARKEL!** Astelehenian 5 urte egin zenduaz eta. Infinito maitte zaittugu, txapeldun!!



Zorionak, **KEPA**. Bixar 5 urte beteko dozuz eta. Besarkada eta patxuak Elorrixoko eta Eibarko famelixen partez.

HAMAikanper LEHIAKETA MARTXAN DA!

EMAN IZENA ETA AURKEZTU ZURE FURGONETA

EZ ZARA PROFESIONALA IZAN BEHAR! SORMENA ETA GOGOA BESTERIK EZ!

HAMAikanper

Eskaneatu QRa eta parte hartu!

www.hamaika.eus/saiorak/hamaikanper

hamaika

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

- 1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
 - Baserria salgai Itziarko Endoia auzoan. 330 m². Oso ondo komunikatuta. Bista paregabeak. 632252602.
- 1.2. Errentan**
 - Ez galdu Donostiako Aste Nagusia, gozatu giro apartaz! Atikoa alokagai terraza eta itsas bistekin, abuztuaren 8tik 24ra. Ondarreta hondartzatik oso gertu. 3 logela, bainugela eta egongela-jangela-sukaldea. Dena berritzuta (wifia). Igogailuarekin. 688840712.
 - Deban etxebizitza alokagai. Urte osorako, familia edo pareja gazte formalaren bila. 3 logela, 2 bainu. Irrixora begira. 750 euro hilero. Epe luzera. 688714605.
- 4. LANA**
4.1. Lan bila
 - Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. 672965658.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 602040399. Veronica.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Interna. 687408348.
 - Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrian lan egiteko eta garbiketarako. Baita asteburuetan ere. 633511066.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta garbiketarako egiteko. Orduka. 667060292.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. 631425686.

- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. 613667234.
 - Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 613949845.
 - Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). 633101852.
 - Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 614433414.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 673538021.
- 4.2. Langile bila**
 - Emakumea behar da nagusia zaintzeko Donostian. Interna. Astelehenetik zapatu eguerdira. Abuztuan hasteko. 640795297.
 - Pertsona behar da irailetik aurrera goizetik bi hurrei prestatzen lagundu eta eskolara eramateko. Euskaraz jakitea baloratuko da. ihintzasa@yahoo.es
 - Emakumea hartuko genuke nagusia zaintzeko. Interna. 688611124. Raquel.
 - Eibarko erdiguneko tabernan eskarmentudun zerbitzaria hartuko genuke. 943558728.
 - Higienista/auxiliarra behar da Ermuko hortz klinika batean. Haurdunaldiko baja baten ordezkapena egiteko. Uztailetik abendura, lanaldi osorako. Bidali CV: hortzklinika.4@gmail.com
 - Ipuruako Jubiletxeko taberna eramateko jendea behar da. 688684509.
 - Emakumea behar da neskatila bat zaintzeko irailetik aurrera, lanaldi partzialerako. 669780187.

- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika batean, astean jardun bat edo birako. Bidali CV: hortzklinika.4@gmail.com
- 5. IRAKASKUNTZA**
5.2. Eskaintzak
 - Neska eskaintzen da ingeles klaseak emateko. Sei urteko ikasketekin. Umeak ere zainduko lituzke. 615701749.
 - LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
 - Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
 - DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

- 6. DENETARIK**
6.2. Eman
 - Urtebeteko txakur emea emango genuke, ezin dugulako zaindu. Spaniel bretainiar nahastutako arrazakoa. Txertatuta eta txiparekin. 686540051.



HELDU!

Ekintzailetza berritzailea
Emprendizaje innovador



EIBARKO EKINTZAILETZA PROGRAMA

ZURE ENPRESA-IDEIA ZEHAZTEN LAGUNTZEN DIZUGU

+ FORMAZIO espezializatuko 32 ordu

+ AHOLKULARITZA adituko 80 ordu

+ TUTORETZA pertsonalizatuko 20 ordu

**IZENA EMATEKO AZKEN
EGUNA: UZTAILAK 22**

**EMAN
IZENA!**



EIBAR
Udala | Ayuntamiento

Debegesa
Debatzeneko Gurekin Agentzia

Errekatxu Berri

BIZIGUNE A



Eguzkia ala itzala? Udan, zer nahiago?

Errekatxu Berrin bietaz
gozatuko duzu. Hasi
aperitiboa prestatzen
terrazara ateratzeko.



Eibarko erdigunean 305.000€-tik aurrera.



Informa zaitez
www.loiola.com
900 102 220

 **Loiola**